

# KLINIKA JURIDIKOAREN JUSTIFIKAZIO MEMORIA

(UPV/EHUK sortutako nortasun juridikorik gabeko egitura eta erakundeen funtzionamendurako oinarritzko arautegiaren 2. artikulua)

## **a/ Helburuak, premia eta gizarte garrantzia**

Memoria honen bidez, nortasun juridikorik gabeko erakunde bat sortzeko eskatzen da. Erakunde horren xedea da ikusgarritasuna eta antolakuntza egitura ematea Klinika Juridiko bati; hain zuzen, UPV/EHUko Zuzenbide Fakultaterako proiektatu da eta 2016-2017 ikasturtean abian jarriko dela aurreikusten da.

Oro har, "Klinika Juridiko" deitzen zaio tradizionala ez den Zuzenbidea irakasteko eta ikasteko modu bati. Hori horrela, Zuzenbidea ikasteko modu klasikoak eskuliburuak, buletinak eta sententziak soilik lantzea esan nahi du ("liburuetako" Zuzenbidea); aldiz, irakaskuntza Klinikoaren ezaugarria da praktikarekin lotuta egotea ("ekintzazko" Zuzenbidea).

Klinika Juridikoak AEBn du jatorria eta azkar hedatu zen mundu anglo-saxoian eta haren kolonia eragina zuten herrialdeetan. Goren unea izan dute Latinoamerikan eta Europan azken hamarkadetan [vid. Frank S. Bloch (arg.) *El Movimiento Global de Clínicas Jurídicas. Formando Juristas en la Justicia Social*. Valencia: Tirant lo Blanch, 2013; José García Añón (arg.) *Transformaciones en la docencia y el aprendizaje del Derecho. Actas del Quinto Congreso Nacional de Docencia en Ciencias Jurídicas. Valentzia, 2013ko irailaren 11-13a* (hemen eskuratu daiteke:

[http://www.uv.es/innodret/pub/2013actas\\_congreso.pdf](http://www.uv.es/innodret/pub/2013actas_congreso.pdf)].

Klinika Juridikoen beste hainbat eredu daude, eta espezialitate juridiko edo tematiko beste egon daitezke. Dena dela, Klinika Juridikoko eredu bat dago, zeinean ikasleen praktika *justizia sozialarekin* lotutako kasuetan eta arazoetan aholkatzera edo inplikatzera bideratuta dagoen. Hortaz, mota horretako ikaskuntza kliniko baten alde egiten duenak bere funtzio jurista justizia sozial horrekin lotuta egotea nahi du.

Ildo horretan, Klinika Juridikoa Zuzenbidearen sistema pedagogikoa eraldatzeko modutzat hartzen da (teoria eta praktika nahasketa), bai eta diskriminazioaren aurkako estrategia juridikoei buruzko gogoetarako eta identifikaziorako laborategi gisa ere. Horien bitartez, ikasleak gizarte bidezkoago bat lortzeko egiteko garrantzitsua duela jakingo du.

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultaterako proiektatzen diren Klinika Juridikoaren funtzioarekin lotutako *helburuak* hauek dira, besteak beste:

1) Harremanetan jartzea Zuzenbide Fakultateko ikasleak bidegabekeria larriak nozitzen dituzten pertsona eta taldeekin, botere sistemek (sexu-generoa, gizarte klasea, arraza-etnia,

ezgaitasuna, nazionalitatea, sexu orientazioa edo identitatea, etab.) bakarka edo batera eragiten dituzten injustiziak pairatzen dituztenekin.

2) Kasuen analisi eta kanalizazio juridikorako tresnak sortzea (zuzenbideen ingeniarietza), ikasketetan ikasitakoa bateratuz gizarte aktibismoan diharduten elkarte eta erakundeen esperientziarekin.

3) Erreformak planteatzea ikasketa juridikoetan eta kriminologikoetan, zeharkakotasuna txertatzeko botere sistemei buruzko gogoetan;

4) Ekarpina egitea botere publikoek justizia sozialeko politiketan egiten duten lanari, zer arlotan esku hartu edo hobetu daitekeen proposatuz.

5) *Street Law* arloko programak edo jarduerak egitea.

### ***Unibertsitatearen gizarte eginkizuna***

Unibertsitatearen erronkei buruz aritzean, gaur egun hiru misio aipatzen dira: irakaskuntza, ikerketa eta gizarte eginkizuna. Klinika Juridikoak hirurak beteko lituzke, baina, aukeratutako Klinika ereduak, hirugarrenari garrantzia emango lioke; hots, unibertsitatearen gizarte eginkizunari. Unibertsitateko ikasleak ezin dira gizarte bidegabekeriako arazoetatik at egon, eta are gutxiago Zuzenbide Fakultateko ikasleak. Klinikaren bidez, ikasleek eta irakasleek gizarte kontzientzia edo kontzientzia kritikoa sortuko lukete, baina, gainera, jardun teoriko-praktikoan, ezagutza sortuko lukete, gizartean egoera ahulenean dauden pertsonen egoera konpontzera begira. Zuzenbide Fakultateak buruan duen Klinika ereduaren pentsaezina da ikasle eta irakasle konprometiturik gabe, eta gure ustez, egoera ahulenean dagoen jendearen arazoekin konprometitutako ikasle eta irakasleengan dago Unibertsitatearen gizarte eginkizunaren giltzarria.

### ***UPV/EHUreren Plan Estrategikoa***

Zehazki, UPV/EHUri dagokionez, Klinika Juridiko bat bete-betean sartuko litzateke 2012-2017 aldirako Plan Estrategikoaren garapenean. Plan honek UPV/EHUreren etorkizuna honela zehazten du: “unibertsitate publikoa da, ikerketan diharduena, euskal gizartean errotua, munduari irekia, aitzindari intelektuala eta konpromiso etiko eta soziala daukana.” Hori horrela, unibertsitatea zehazten duten alderdi horiek guztiak justifikatuta daude Klinika Juridiko bat sortzean.

#### **- Unibertsitatea publikoa**

Erakunde *publikoa* denez, unibertsitateak aktiboki parte hartu behar du demokrazia garatzean, eta horrek esan nahi du, funtsean, bereizkeriaren eta bazterketaren aurka borrokatu behar duela eta aldi berean, aniztasuna eta tolerantzia sustatu behar dituela. Hain zuzen, modu horretan legitimatzen da unibertsitate *publiko* bat. Ildo horretan, Zuzenbide Fakultaterako diseinatutako ezaugarriak dituen Klinika Juridikoaren lana UPV/EHUri legitimitatea ematea

izango litzateke. Horretarako, zerbitzuak eskainiko dizkie talde sozial, erakunde, elkarte, mugimendu, gobernu eta tokiko instituzioei, besteak beste. Horiei ezagutza helaraziko die, baina ezagutza ere ekoitziko du haien premietatik abiatuta, eta ildo horretan, estrategiak diseinatuko ditu gizartean botere sistemek eragindako ahultasuna gehien jasaten dituztenen eskubideak eta asmoak hobeto babesteko.

- **Unibertsitate ikertzailea**

Zuzenbidearen berrikuntza pedagogikoa berezkoa du Klinika Juridikoaren metodologiak. Irakaskuntza juridikoaren modu berritzaileak (gaitasunetan oinarritutako prestakuntza, kasu metodoa, ikaskuntza kooperatiboa, auzitan aritze estrategikoa, zinemaren eta literaturaren erabilera, etab.) naturalki kokatzen dira Klinikaren funtzionamenduaren ezaugarri den diziplina artekotasunean eta profesionaltasun artekotasunean. Aholkatzeko, kasu bat ebazteko, txosten bat egiteko edo araudian aldaketak iradokitze modurik onena ikertzea da errealitate juridiko-sozialari buruz hainbat diziplinatatik (batzuetan, baita zuzenbidetik kanpokoak ere) eta lanbide juridikoen aniztasunetik (abokatutza, jurisdikzioa, aholkularitza letraduna...) trukeko eta lankidetzako dinamiketan; dinamika pedagogiko horien premiak bultzatu zuen, hain zuzen, Klinika Juridikoak sortzea.

- **Euskal gizartean sustraitutako unibertsitatea**

Klinika Juridikoaren lana euskal gizartea osatzen duten pertsonen eskubideak defendatzean eta babestean datza zehazki, eta gizarte horrek elkarte gisa defendatzeko moduko nahikoa garrantzi duela jotzen duen aldaketa sozial eta juridikoa bilatzean. Hain zuzen, horregatik, pertsonen eta bereizitako taldeen eskubideei eragiten dien gizarte arazoaren ezagutza iturri nagusia euskal gizartearen errealitatean diharduen ehun asoziatibotik dator.

- **Munduari irekitako unibertsitatea**

Klinika Juridikoak ezarrita daude Espainiako hainbat unibertsitatetan (Valentzia, Madrilgo Carlos III.a, Bartzelona, Tarragona, Alcalá), baina Klinika Juridikoen ezarpenak mugimendu global bati erantzuten dio. Mugimendu horrek biltzarrak antolatzen ditu 5 kontinenteetan (2011n Valentzian/Espainian egin zen, baina aurretik Indian, Hego Afrikan, Polonian, Argentinan eta Filipinetan), bere aldizkaria du (*International Journal of Clinical Legal Education*) eta haren jarduteko oinarri nagusia sareko lana da (ENCLE edo *European Network for Clinical Legal Education*). UPV/EHUn Klinika Juridiko bat sortzea, beraz, euskal unibertsitate publikoak munduari irekitzeko modurik onena izango litzateke.

- **Lidergo intelektual eta konpromiso etiko eta soziala**

Justizia soziala, giza eskubideen defentsan eta diskriminazioaren aurkako borrokan gauzatua, Klinika Juridikoen mugimenduaren oinarrietako bat da (oinarri nagusia ez esateagatik). Ildo horretan, UPV/EHUK nekez izan dezake konpromiso etiko eta sozialarekiko inplikazio neuralgikoago bat erakundearen baitan Klinika Juridiko bat izatea baino. Lidergoa "prozesu" gisa zehazten da, "irabazten den zerbait" bezala (D. L. Rhode 2013: 203). Gehiegitan, lidergo intelektualaren ikuskera gizarte merkantilistaren aurrerapenetan kokatuta (eta horretara bideratuta) dago. Nolanahi ere, unibertsitate *publikoaren* ezaugarria goi mailako beste

ikaskuntza zentro batzuekin alderatuta (unibertsitatekoak edo ez), demokraziari egindako kritika eta garapena lehenesteko aukera da, merkatuaren eskakizunengatik gizarte jakin bat elikatzen duten profesionalen prestakuntza lehenesten den aitzindaritzaren baten aurrean. Klinikaren Juridikoak inbertsio handia dira aitzindari intelektuala izatearen arloan, baina inbertsio horren aitzindaritzaren hori gizartearen arazoekiko eta justizia sozialarekiko konpromisora bideratuta dago. Izan ere, hori da, ez gehiago ez gutxiago, gure unibertsitatean Klinikaren Juridiko baten sorrera sustatuko lukeena: UPV/EHU aitzindari bat justizia sozialarekiko konpromisoan.

## **b/ Izen ofiziala eta egoitza**

Erakundearen izen ofiziala hau izango litzateke: *UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinikaren Juridikoa*, eta egoitza Donostiako Zuzenbide Fakultatean izango luke.

## **c/ Ikerketa ildoak eta irakaskuntzako eta unibertsitate hedakuntzako jarduerak**

Klinikaren ikerketa ildoak giza eskubideen ezarpenarekin eta diskriminazioaren aurkako Zuzenbidearen garapenarekin lotuta daude, nazioarteko, Europako, estatuko eta autonomietako araudietan islatuta dauden askotariko bereizketa ardatzak aitortzea oinarri hartuta (generoa, maila, arraza, etnia, desgaitasuna, sexu orientazioa eta nortasuna, nazionalitatea...).

Klinikaren hasierako funtzionamenduan aurreikusitako irakaskuntza jarduerak hauek izango lirateke: graduoko *practicuma*, eta gero, pixkanaka zabalduko litzateke, Gradu Amaierako Lanetara, eta azkenik, Master Amaierako Lanetara. Etorkizunean, ez da baztertzeko Graduan hautazkoren bat sartzeko, zehazki pedagogia eta praktika klinikora bideratuta. Halaber, azpimarratzekoa da irakaskuntza jardueran ez luketela Fakultateko irakasleek soilik parte hartuko; horiez gain, proiektuan parte hartzeko interesa erakutsi duten hainbat lanbide juridikotako langileek ere parte hartuko lukete (abokatutzan, epailetzan, erakunde aholkularitzan...).

Klinika gizartera zabaltzea agerian geratzen da ezarritako helburuetan. Irakaskuntza klinikaren ezaugarri nagusia Zuzenbide Fakultateko ateak gizarterari irekitzea da zentzu bikoitzean: 1) jendearen benetako arazoak irakaskuntza juridiko eta kriminologikoetan txertatzea; eta 2) jende horren beraren esku uztea irakaskuntza juridiko eta kriminologikoak. Gainerakoan, arestian azaldutako helburuetan aipatzen den moduan, Klinikaren berezko jardueraren bat *Street Law* deritzonaren baitan dago.

Era berean, aurreikusten da etorkizunean Klinikak bestelako jardueraren mota batzuk sortuko dituela, *Street Law* deituaren baitan.

Labur-labur esateko, *Street Law* hainbat arlotan gara daitezkeen (ikastetxeak, institutuak, helduentzako ikastetxeak, espetxeak eta beste komunitate espazio batzuk) *alfabetatze juridikoko* jardueraren bat da, eta oro har herritarrentzat izan arren, zentzu handiagoa hartzen du bereziki bereizitako taldeak edo desabantailak nagusi diren gizarte egoera argian dauden taldeak ardatz dituenen. Asmoa da pertsonen beren eskubide eta erantzukizunei buruzko informazioa hurbiltzea. Zuzenbidearekiko beldurra kentzean datza, hari buruz dagoen irudia

aldatzea. Izan ere, "Street Law" izena AEBn sortu zen aurreko mendeko hirurogeita hamarreko hamarkadan, eta Zuzenbide praktikoaren irakaskuntza jurista ez zenari hurbiltzeko ahalegina izendatzeko erabili zen, "kalean" eguneroko bizitzan baliagarria izateko. Baliabideen eta eskaeren arabera, *Street Law* arloko ikastaroak bestelakoak izan daitezke, hala nola bideoak prestatzea; aurkezpen isolatuak egitea (esaterako, giza eskubideen eta horien inplikazioen arloan estatuko eta nazioarteko legediari buruzko nozio orokor batzuk jakinaraztea), ingurumena babesteari eta etxebizitzaren arloko eskubideei buruzko ikastaro laburrak egitea; etorkin, babestu eta askotariko faktoreengatik baztertutakoei eskubideei buruzko ikastaroak eskaintzea...

**d/ Beharrezkoak diren giza baliabideen eta baliabide materialen ebaluazio ekonomikoa, baita kokapenaren aurreikuspena eta funtzionatzeko diru sarreren eta gastuen kalkulua ere.**

**Espazio fisikoa:**

Klinika irekitzeko espazio fisiko bat edukitzea eskatzen du, ikasle eta irakasle gainbegiratzaileren arteko harremanak ahalbidetzeko, eta hala badagokio, pertsona fisikoei edo pertsona juridikoen ordezkariari zuzeneko arreta eskaintzeko, horien parte hartzeak hala eskatzen badu.

Zuzenbide Fakultateak areto bat du eta xede horretarako erabiliko da. Aretoa, hain zuzen, ikastegiko liburutegiaren dokumentazio arloaren zati izan zen bere garaian. Era berean, atxikitako bulego bat baliatzea aurreikusten da, bere garaian liburutegi zerbitzuko arduradunak erabiltzen zuena, administrazio kudeaketako lanak egiteko.

Hori dela eta, ez da inbertsiorik egin behar eta ez da beharrezkoa ikastegiko edo Unibertsitateko baliabide ekonomikoak bideratzea xede horretarako; aitzitik, dagoeneko badagoen material egokia berrerabiliko da.

**Giza baliabideak:**

Klinikaren jarduneko zereginetara lotutako administrazio eta zerbitzuetako langilerik hartzea edo jartzea ez da aurreikusten. Edonola ere, langileren bat kontratatzekotan, kanpotik finantzatutakoa izango litzateke, eta UPV/EHUko araudian horrelako kontratazio-motei buruz ezarritako batekizunak eta prozedurak jarraituz egindakoa.

Klinika juridikoaren antolakuntza egituran parte hartzen duten pertsonak Unibertsitateko arauaren arabera ez dira kargu akademiko pertsonal edo kolegiatutzat hartuko.

**Finantzaketa:**

Klinikaren finantziaketa ziurtatzeko, hauek izango dituzten bideak:

Gastuak estaltzeko argitaratzen diren deialdi orokorretara aurkeztuz lortutakoa, beti ere haietan parte hartzerik balu; eta entitate publiko nahiz pribatuetatik jaso ditzakeen subentzio, ekarpen eta laguntzak. Berez lortutako finantziak hori autonomiaz kudeatuko du klinikak berak, UPV/EHUko gainbegiratzailerekin bat noski.

Memoria hau idazteko momentuan oraindik proiektuarekin modu egonkorrean lankidetzan aritzeko kanpo-entitateen konpromisorik ez badago ere, etorkizunean beste entitate batzuk parte hartzeko aukera zabalik da beti; horretarako, hala beharrez, dagokion lankidetzahitzarmena egingo da kasu bakoitzean.

**e/ Barne funtzionamendurako araudia**

UPV/EHUko Zuzenbide Fakultateko Justizia Sozialaren aldeko Klinika Juridikoaren Funtzionamendu Arautegia atxiki da aparteko dokumentu batean. Arautegi hori Fakultateko Batzarrak onartu zuen 2016ko maiatzaren 3an.

2016/05/03

A handwritten signature in blue ink, consisting of a stylized 'J' and 'G' intertwined, followed by a horizontal line extending to the right.

Juana Goizueta Vértiz

Zuzenbide Fakultateko Dekanoa